



**2020-01-27an EGINDAKO EZ OHIKOA
UDALBATZA.**

**SESIÓN EXTRORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
27-01-2020 .**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2020ko urtarrilaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohikoa Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Eluska Irazu Hernandez.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de enero de 2020 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordianria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Eluska Irazu Henández

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4ZJ06.M8CM>

Ez Ohikoa Udalbatza
Pleno extraordinario



1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

Ez da egon.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA UDAL ZERBITZUA EMATEKO EGINDAKO KONTRATUAREN LEHENENGO LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuraren, ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO kontrata GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

Prezioak:

Lanegunetako orduaren prezioa: 21 € + BEZ.

Jaiegunetako orduaren prezioa: 25 € + BEZ.

Baldintza administratibo partikularren agiriaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuengen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du 2019ko urtarrilaren 16tik kontatzen hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratacio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Udal zerbitzu teknikoek jakinarazi dute komeni dela kontratua beste urtebetetz luzatzea.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitutako kontrata URTEBETEZ luzatzea.

3.- OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN ESLEIPEN KONTRATUAREN LAUGARREN LUZAPENA.

Udalbatzarrak 2012ko otsailaren 16an hartutako erabakiz, Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua esleitu zitzaien Juan Luis Eraña Altuna jaunari. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Kontratuaren hirugarren baldintzaren arabera, epe hori 2 urtez luza daiteke, behin eta berriz jarraian, guztira 20 urte egin arte kontratuko epea eta luzapenak kontatuta.

Kontratuak bi urteko hiru luzapen izan ditu orain arte, eta, beraz, otsailaren 29an beteko du 8 urteko indarraldia.



Luzapena berariaz erabaki beharko du kontratacio organoak, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratuaren beste luzapen bat egitea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua BI URTEZ luzatzea, kontratuaren hirugarren baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO EMANDAKO BAIMENAREN EPEA LUZATZEA.

Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen 2019ko ekainaren 26an:

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuetako batzordeak 1397. espaldinedun pertsonari gizarte larrialdieta rako etxea aldi baterako erabiltzeko behin-behineko emandako baimena berrestea.

Bigarrena.- ESKRIATZAKO UDALAK KUDEATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEAREN BARNE ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUKO 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimenaren indarraldia luzatu ahal izango da, aldez aurretik horren beharra egiaztatzen bada, eta zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostena egin eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak baimentzen badu.

Hartutako erabakiaren arabera, baimenak 2020ko urtarrilaren 31ra arteko indarraldia du.

Emandako baimenaren indarraldia luzatzeko eskatu du interesdunak 2020ko urtarrilaren 16an.

Udal gizarte langileak egindako aldeko txostena eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako aldeko diktamena jasotzen dira espediente an.

Esandako guztian oinarrituz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hilabetez luzatzea, hau da, datorren otsailaren 29ra arte, Udalbatzar honek 2019ko azaroaren 26an gizarte larrialdieta rako etxebizitzak aldi baterako erabiltzeko emandako baimena 1397 espaldiente zenbakidun pertsonari.



5.- DIRULAGUNTZA EMATEA HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMAREN BARRUAN.

2019ko martxoaren 1ean onartu zen hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzen 2019ko ekitaldiko deialdia 2017ko martxoaren 28an eta 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuretan udalbatzarrak onartutako oinarrien arabera.

PAUXA EDERTASUN ZENTROko Jennifer Gomes Sanchezek, 44330700V NAN zenbakidunak, 2.241 sarrera zenbakia duen idazki bidez, dirulaguntza eskatu du hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, arloko teknikariak zuzena zela ikusi du.

Aurreko guztsia kontuan izanda eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Jennifer Gomes Sanchez andreari ondorengo dirulaguntza ematea, hurrengo 24 hilabetetan, PAUXA EDERTASUN ZENTROko alokairua ordaintzeko:

- Lehenengo urtean, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte: 90 €/hileko.
- Bigarren urtean, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte: 60 €/hileko.

Bigarrena.- Gastu hori onartzea eta honela banatzea:

- 1.080 €-ko gastua 2020. urteko aurrekontuko 0500.481.431.00.01 partidaren kontura.
- 720 €-ko gastua 2021. urteko aurrekontuaren kontura.

Hirugarrena.- Eskatzaileak jabeari alokairua ordaindu diola egiaztatzeko dokumentuak aurkezu ondoren ordainduko da lehen hiruhileko dirulaguntza. Ondorengo dirulaguntzak hiruhilerro ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiaztatzeko dokumentuak aurkezu eta gero, eta zerga betebeharak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzaako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

6.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LEHENENGKO LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari esleitza erabaki zuen ondoren esango



diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe. Prezioak:

- Derrigorrezko zerbitzuak: 153.459,25 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 15.345,93 euro.
- Aukerako zerbitzuak: 79,99 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 8 euro.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOIA izango da 2019ko martxoaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko otsailaren 28ra arte izango du indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko da.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratacio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Orain, 2020ko urtarrilaren 13ko datarekin, Koldo Nieto Martin jaunak, CESPA, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, idazkia aurkeztu du ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua 2020ko martxoaren 1etik aurrera URTEBETEZ luza dadin eskatzeko .

Eskera aztertuta, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak kontratua urtebetez luzatzearen aldeko diktamena egin du.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES S.A.-ri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako kontratua urtebetez luzatzea, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

ESANDAKOAK:



Nestor Aranak galdu du ea kontratu honi eta gai zerrendako hurrengo puntuaren aztertu beharrekoari aplikagarri zaien Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea, eta zehazki, ibilgailuei buruzko alderdiak.

Josu Ezkurdiak jakinarazi dio baldintza agirian jasotzen zirela zerbitzua ematerakoan erabili beharreko ibilgailuei buruzko ingurumen kontuak.

Idazkariak gogorarazi du Legea 2019an sartu zela indarrean, eta kontratu biak lehenago lizitatu zirela, 2018an.

7.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LEHENENGO LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 4an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen 102.192,29 eurotan urteko gehi BEZari dagozkion 21.460,38 eurotan.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko apirilaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko martxoaren 31ra arte izango du indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko da.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearren 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratacio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Orain, 2020ko urtarrilaren 13ko datarekin, Koldo Nieto Martin jaunak, FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, idazkia aurkeztu du ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN kontratua 2020ko apirilaren 1etik aurrera URTEBETEZ luzatu dadin eskatzeko.

Eskera azertuta, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak kontratua urtebetez luzatzearen aldeko diktamena egin du.



Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

8.- EAEN 2020an MUGIMENT KIROL TXARTELIA EZARTZEKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEA.

Mugiment Kirol Txartela Eusko Jaurlaritzak, aldundiekin eta hainbat udalekin batera, sustatutako proiektu bat da, herri horietako biztanleei 'txartel birtual' bakarra erabiltzeko aukera ematen diena. Txartel horrek ekimenari atxikitako kirol-instalazioetarako sarbidea ematen du, hau da, kirol-zerbitzu bateko bazkideei beste herri bateko instalazioak inolako kosturik gabe erabiltzeko aukera emango die, baldin eta hitzartuta badaude.

Proiektu horren helburua da jarduera fisikoa sustatzea eta sedentarismoari aurre egitea, herritar guztiei kirola egiteko erraztasun gehiago eskainiz, eta, Bizkaiko ezkerraldean aspalditik funtzionatzen duela ikusita, Debagoinen ezarri nahi da, sei hilabeteko probaldirako, 2020ko urtariletiak aurrera.

Horrek esan nahi du aldi horretan Arrasateko, Aretxabaletako, Oñatiako, Eskoriatzako eta Bergarako kirol zerbitzuek parte hartuko dutela ekimen horretan.

Instalazio bakoitzak dituen berezitasunak eta bere eskaintza ikusita, udalerri bakoitzak erabakitzeko ahalmena du zein kirol proposamenetara eta zein ordutegitan sar daitezkeen doan beste herrietakoak.

Kontuan hartuta kirola egiteko erraztasun gehiago emateak Eskoriatzan, Mankomunitatean eta Euskadin kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko beste urrats bat dela, eta Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EAEn 2020an Mugiment kirol txartela ezartzeko lankidetza hitzarmenari atxikitzea 6 hilabeteko probaldian (urtarilean hasita).

Bigarrena.- Luis Muñoz kirolegiko instalazioak erabilgarri jartzea aste gunetan 7:45etik 17:00etara; igerilekua, 8:00etatik 17:00etara; eta fitness zerbitzu guztiak, abonaturek dituzten prezioetan.

9.- KLIMA ALDAKETARI BURUZ EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Hitzea emanda, EH BILDUK aurkeztutako mozioaren xedapen zatia irakurri du Nestor Aranak.

Hona hemen mozioaren testua osorik hitzez hitz:



EH BILDUKO MOZIOA

Larrialdi Klimatikoa gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa da, benetako zibilizazio erronka bat eta Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago, geldotasunerako.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak antzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politiketan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbiziork ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5ºCko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrik egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai



lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrik ematea ezinbestekoa dela.

Eskoriatzan erronka handiak ditugu zentzu horretan ere; erabakiak hartzera behartuko gaituzten erronkak. Hurrengo urteetako plangintza garatzerako orduan gaiari helduko diogu era estrategikoan ze erabaki eta ze bide hartzen dugun erabakitzeko. Dena dela, bitartean, erabaki batzuk hartu daitezke, gure herria modernizatzeari alderatzen. Zentzu honetan 4/2019 legeak administrazio publikoei betebehar batzuk ezartzen dizkie, tartearen, titulartasun publikoa dituzten eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

*Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari **behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin**, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.*

Eskoriatzan 2020(e)ko Urtarrilaren 3

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Josu Ezkurdia: Gure taldeak mozioaren alde bozkatuko du, nagusiki bi arrazoirengatik: lehenengoa da, legegintzaldiaren hasieran esan genuelako kontuan hartzeko moduko proposamenekin etorriko balitz BILDU horien alde egingo genukeela, eta hori da kasua; eta bigarrena, arazo klimatikoa errealtitate bat delako eta guztion erantzun bateratua eskatzen duelako, edozein ideologia politikoren gainetik. Horren harira, esan behar dut Eskoriatzako Udalean, aurreko legegintzaldian, zenbait neurri hartzen hasi ginela, gure ahalmenen barruan, klima-aldeketa geldiarazteko. Adibidez, udaltzainentzako auto elektrikoa erostea, argiteria publikoa berritzea, eta, Euskadiko 4/2019 Legea betez, udal eraikinen energia-auditoria abian jartzea. Eta agintalditik gelditzen den denboran prest gaude gai honetan zuekin lan egiteko. Horretaz guztiaz gain, eta, gure ideologia-ezberdintasunak gorabehera, aho batez adostu dugun gai honekin lotuta, bai salatu nahiko genukeela urtarrilaren 30eko greba deialdia zela-eta Eskoriatzako kaleetan eta ibaira botatako paper kopuru handia. Ez dugu ulertzen nola aldarrikatu daitekeen aldarrikatzen dena herri osoan paperak jarri eta guztia hondakinez beteta utziz.

Nestor Aranak eskertu du babes, eta, Josu Ezkurdiak salatutako gertaerei dagokienez, esan du berak ere duela hiru urte baino gehiago salatu zuela ibai ertzak plastikoz beteta zeudela, eta salatu ondoren behin bakarrik egin dela zerbait, eta gaur egun egoera berean edo antzerakoan dagoela ibaia.



Hitz egiteko txandak amaituta, bozkatu egin da, eta mozioa aho batez onartu da.

10.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: URTARRILAK 30, GREBA OROKORRA, LAN PENTSIO ETA BIZITZA DUINENGATIK.

Ander Errartek mozioa aurkezteko bere taldeak dituen arrazoiak azaldu ditu, eta mozioaren xedapen zatia irakurri du. Ondoren transkribatzen da osorik eta hitzez hitz mozioaren testua:

URTARRILAREN 30ean, GREBA OROKORRA, LAN PENTSIO ETA BIZITZA DUINENGATIK

LAN- PENTSIO- BIZITZA-DUINAREN ALDEKO GREBA BABESTEKO EBAZPEN PROPOSAMENA.

ZIOA

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartziale baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldleen arteko oreka, jendartearren beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantziengatik eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Adarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Gure erakundeak

1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.



2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.

3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik

3.1. Madrilen osatuko den Gobernuari eskatzen dio

- 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murriketak indargabetzea.
- Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.
- Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.

3.2. Gasteizeko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldatu ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuei eskatzen die

- Gizon eta emakumeen arteko soldatu-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Soldatu gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.
- Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murriketak atzera botatzearekin
- batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren araberako diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4.- Gure Erakundean adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

ESANDAKOAK:

- Iñaki Kerejeta: Ni abstentu egingo naiz, nik ordezkatzen dudan taldean iritzi aniztasuna dagoelako.
- Josu Ezkurdia: guk aurka bozkatuko dugu, batez ere, greba politikoa dela uste dugulako. Euskal Herriko indar politiko gehienak kontra daude, eta pentsatzen dugu euskal herritar gehienak ere aurka daudela. Oso argi daukagu politizatu egin dela. Egia da sindikatu batzuek, Bilduk eta pentsiodunen kolektibo batek bat egiten dutela,

baina beste kolektibo asko kontra agertu dira, eta greba sozial bat izan behar zuena greba politikoa bihurtu da. Gure kasuan ere kontrastatu egin dugu, eta ikusi dugu pertsona askok ez dutela babesten, ez dutela greba egiteko arrazoirik ikusten, eta horregatik bozkatuko dugu aurka.

- Ander Errarte: Hala ere, guk ikusten dugu Euskadiko sindikatu adierazgarrienek babestu egiten dutela, mugimendu feministak babestu egiten duela eta pentsiodunen kolektiboak ere babestu egiten duela, eta greba horretara deitzen dutela. Gure ustez, kolektibo horiek jende asko ordezkatzen dute, eta horrekin eskatzen dena bizi-baldintzak hobetzeko oinarrizko kontuak dira. Hori dela eta, Eskoriatzako EH Bilduk greba babestu eta grebara deitu du, eskatzen diren gauzak oinarrizkoak direlako eta asko direlako greba babestu eta grebarako deia egiten duten gizarte kolektiboak.
- Josu Ezkurdiak erantzun dio gaur egun Nafarroan, Euskadin eta Estatuan dauden gobernu aurrerakoiekin beraiek ez dutela uste greba bat denik biderik egokiena lortu nahi diren hobekuntza sozialak aldarrikatzeko; uste dutela gobernu aurrerakoi horiei utzi egin behar zaiela beren lana egiten, lortu nahi diren berdintasuna eta justizia soziala pixkanaka-pixkanaka lortzeko. Ondoren, esan du honako kritika edo salaketa hau egin nahi duela hilaren 30eko greba dela-eta espazio publikoen erabilera alderdikoia egin delako: "Personak batzuek greba horren aldeko kartelak jarri dituzte udaletxearen atzealdean dauden paneletan. Panel horiek 2019ko urtarilean egindako gizarte-zerbitzuetako batzordearen akordio bidez jarri ziren, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko eta elkartasuna adierazteko puntu bat izateko helburuarekin. Hala ere, greba bat babesak emateko helburu alderdikoiekin erabili izan dira, panelen xedea aldatuz. Horregatik, gobernu-talde honek gaitzetsi egiten du espazio publikoen erabilera alderdikoia, eta bereziki salatu nahi du hori egin izana genero-indarkeriaren biktima ikusarazteko eta horiei elkartasunera adierazteko bideratutako espazio batean. Eta, ondorioz, arduradunak identifikatu ahal izateko gertakaria ikertzeko aginduko dio gobernu-taldeak udaltzaingoari."
- Ander Errartek erantzun dio bere ustez izan daitekeela espazio hori kudeatzen dutenen artean emakume feministen kolektiboa dagoelako eta feministen elkartea delako grebarako deia egin duen taldeetako bat. Azpimarratu du uste duela horregatik izan daitekeela, uste duela feministen elkarrekin grebaren alde egin duelako izan daitekeela, eta horregatik jarri direla espazio horretan ere kartel horiek.
- Josu Ezkurdiak erantzun dio espazio horren erabilera udal honek arautua dagoela erabiltzaile guztien adostasunarekin, eta horien artean feministen kolektiboa dagoela; adostutako erabilera urratu dela eta udal honek ezin duela egoera hori onartu.

Eztabaidea amaitu ondoren bozketa egin da. Aldeko 3 botorekin (EH Bildu), EEEko zinegotzia abstenitura, eta aurkako 6 botorekin (EAJ/PNV), mozioa ez da onartu.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:35ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



1.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

No se producen

2.-PRIMERA PRÓRROGA DEL CONTRATO FORMALIZADO PARA LA PRESTACION DEL SERVICIO MUNICIPAL DE AYUDA A DOMICILIO.

El Pleno de la Corporación, en sesión del día 11 de diciembre de 2018 , adoptó el acuerdo de Adjudicar a GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA por los precios que a continuación se indicarán y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

Precio:

Precio/hora días laborables: 21 €/hora + IVA

Precio hora días festivos: 25 €/hora + IVA

De acuerdo con el pliego de cláusulas administrativas particulares, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el art. 29 de la Ley de Contratos del Sector Público, el plazo de duración del presente contrato será de 1 AÑO a contar desde el 16 de enero de 2019 y podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de CINCO AÑOS. Las prórrogas serán anuales y deberán ser acordadas expresamente por el órgano de contratación. Serán obligatorias para el empresario, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato y no concurra la circunstancia prevista en el último párrafo del apartado 2 del art. 29 de le LCSP2017.

Desde los servicios técnicos municipales se informa sobre la conveniencia de la prórroga del contrato por el plazo mencionado.

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar por periodo de UN AÑO el contrato adjudicado a GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. para la prestación del SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA.

3.-CUARTA PRÓRROGA DEL CONTRATO DE ADJUDICACIÓN DEL DERECHO DE EXPLOTACIÓN DEL SERVICIO DEL BAR-SALÓN DEL HOGAR DEL JUBILADO DE OLAZAR.

Mediante acuerdo plenario de fecha 16 de febrero de 2012 se adjudicó a Juan Luis Eraña Altuna el contrato de utilización y explotación del servicio de Bar-Salón del Hogar del Jubilado de Eskoriatza. El plazo inicial de duración del contrato era de 2 años.

De acuerdo con la cláusula tercera del contrato, dicho plazo era prorrogable por un periodo de de 2 años, de manera sucesiva, hasta un total computando plazo contractual y prórrogas, de 20 años .



Hasta la fecha el contrato ha sido objeto de tres prórrogas de 2 años de duración de cada una de ellas, por lo que el próximo 29 de febrero cumpliría una vigencia de 8 años.

La prórroga debe ser acordada expresamente por el órgano de contratación, siendo en este caso el Pleno.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite informe en que se considera conveniente una nueva prórroga del contrato.

